

PARAISO ANTZERKIA

ERPURUTXO

...ipuin mamitsua...



GIDA DIDAKTIKOA

Laguntzaile



MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala



Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava



Jarraituiguzu:



@TeatroParaiso

AURKEZPENA

Gida honek irakasleentzako baliabide sustagarria izatea du helburu. Horretarako, tresna pedagogikoak eskaintzen ditu, "Erpurutxo" antzezlanera joatea gelako bizitzan une adierazgarria bilaka dadin, eta umeen sentsibilizazio artistikoan lagun dezan.

Teatro Paraisok Erpurutxo ipuinaren bertsio paregabea sortu du Iñaki Rikarte autore eta zuzendariaren eskutik. Aita bat eta aitona bat dira antzezlanaren protagonistak, eta bion artean lotarako orduan hainbat alditan kontatutako istorioa berregiten dute.

Orain da ikusleek obra hau gozatzeko unea!



ANTZOKIRA JOATEKO PRESTATZEN

Gertaera artistiko batera joateko prestatzeak, eskatzen du, ezer baino lehen, arteari orokorrean, gizakien adierazteko modu gisa, garrantzia ematen jakitea. Halaber, zuzeneko arte mota baten ezaugarri berezietara hurbiltzea eskatzen du.

Premisa horretatik abiatuta, zenbait jarduera proposatzen dizkizuegu, batetik, ikusleen memoria aktibatzen laguntzeko, eta, bestetik, ikasleek antzezlanean modu emozionalean parte har dezaten sustatzeko.

IZENBURUA EDO HARRI KOSKORREK MARRAZTUTAKO BIDEA

Bidaia hasteko, umeak ikuskizunaren izenburua asmatzera gonbidatuko ditugu.

Jolasa biziagoa izan dadin, maleta batean istorioan funtsezkoak diren objektu eta material batzuk sartuko ditugu, esaterako: harri koskorrak, botak, ogi-puskak, zuhaitz-adarrak... Erantzuna bideratzen duten aztarnak dira.

Azkenean, Erpurutxo ipuinaren antzezlanea ikusiko dugula ohartuko gara; baina zer dakigu guk istorio horri buruz?

Oroitzapen-bidea egitea proposatuko diegu haurrei. Bakoitzak harri bat hartuko du, bidea osatzeko. Lurrean jartzen duenean, besteei istorioari, pertsonaiei edo lekuari buruzko oroitzapen bat azalduko die. Harriz harri, oroitzapenez oroitzapen, hasierako ipuina eraikiko dugu gutxi gorabehera.

Hala ere, baliteke antzokian istorioa oso bestelakoa izatea, eta kontakizuna gu berriz harritu eta hunkitzeko eraldatu izana. Ikus dezagun!

Antzokirako bidaia prestatzeko unea da. Erabilgarria izan daiteke poltsikoan harri koskorrak eramatea, galdu ez eta eskolara itzultzen jakiteko.

AUTOREAK. BIDEKAK OGI-PUSKEKIN

Inork ez du ezagutzen behin, kontaketan, Erpurutxoren istorioaren ibilbidea marrazten hasi zen pertsona. Denek ahaztu zuten jatorrizko autorea, eta desagertu egin zen. Ipuinak, berriz, bizirik iraun du, ahoz aho.

Egun batean, Charles Perrault-ek hainbat lekutan zabaldutako ogi-puska narratiboak bildu zituen, eta gaur egun ezagutzen dugun ipuina oratu zuen.

Harrezkerotik, egile eta narratzaile ugari birsortu dute kontakizuna.

Oraingo honetan, egile eta zuzendari arabar gazte batek, Iñaki Rikarte-k, bildu ditu istorioaren ogi zatiak, eta antzezlan-formatuan eta egungo testuinguruan prestatu ditu.

Hala, Erpurutxo obra honek Perraulten testua oinarri duen arren, egoera dramatiko berritzaile batean kokatzen da, eta ipuinaz gozatzeko beste bide batzuk marrazteko aukera ematen du.

★ IPUINAREN EGILEA: CHARLES PERRAULT



Charles Perrault 1628 eta 1703 bitartean bizi izan zen, Luis XIV.aren mendean, Moliere, Racine eta La Fontaine-ren garaian.

Perrault umeentzat bereziki eginiko literatura idatziaren aitzindaria izan zen. Haren ipuinen jatorria herrikoia zen, batik bat.

Ez zituen alegiazko elementuak asko erabiltzen; giroen eta garaiko bizitza-egoeren deskribapenak, aldiz, sarritan

baliatzen zituen. Perraultek istorio zaharrak kontatzen zituen, baina bere garaiko irakurleek ezagutzen zituzten testuinguruetan kokatzen zituen.

Antzinako Erregimeneko gizarteak desberdintasun sozial bidegabe ugari zituen, eta, ipuinetan, pertsona boteretsuak zein xumeak agertzen ziren.

Aberatsek indar handia zuten; nobleek ez ezik, burgesek ere botere nabarmena zuten. Horien ipuineko adibide dira ogoak.

Horrela, Erpurutxo ipuineko ogroa burges aberats bat da, zeinak dirua xahutzen duen alabentzako urrezko objektuak erosten eta lagunentzako oturuntzak eskaintzen.

Zalantzarik gabe egoerarik gaitzena nekazarien seme-alabek bizi zuten. Ipuinean, Erpurutxoren familiak larrialdi ugari pairatzen ditu, gurasoak eta lan egiteko txikiegiak diren zazpi seme-alaba bizi direlako etxean. Gosete garaian, irtenbide bakarra pertsona txiki ez-emankor horiez libratzea da; eta hori ez da amaorde gorrotagarri baten ideia izan, gurasoena baizik. Izan ere, XVI. eta XVII. mendeetan, guraso askok haurrak “esposizioan” uzten zituzten, hau da, bertan behera uzten zituzten, ezin zituztelako zaindu.

Ipuin herrikoien protagonistak haur babesgabeak izaten dira (alabaordea, semerik txikiena, ahulena, txiroena...). Era berean, antiheroi horiek ordainekoa hartzeko aukera izaten dute kontakizunetan, nahiz eta, tamalez, errealitatean oso ezohikoa izan.

★ ANTZEZLANAREN AUTOREA: IÑAKI RIKARTE



Iñaki Rikarte 1981ean jaiotzen zen Gasteizen.

Erpurutxoren bertsio honen sortzaile eta zuzendaria bere jaioterrian hasi zen Arte Eszenikoak ikasten, eta, 1999an, Madrilera joan zen. Lau urte igaro ostean, Interpretazio lizentzia eskuratu zuen, Madrileko Arte Dramatikoaren Errege Goi-Eskolan (RESAD).

2002an, lehenbiziko antzezlanazuzendu zuen, EL GATO NEGRO konpainian. Sei urte geroago, ANTZERKI-ZENTRO NAZIONALERA heldu zen Ignacio García May-ren eta Gerardo Vera-ren zuzendaritza-laguntzaile izateko “El hombre que quiso ser rey” eta “Rey Lear” obretan, hurrenez hurren.

Urte garrantzitsua izan zen 2010a gasteiztarraren bizitzan, KATU BELTZ konpainiarekin batera “Sísifo B” obra sortu eta zuzendu zuelako, eta, ostean, KULUNKAREN “André y Dorine” antzezlanaz gidatu zuelako. Artista arabarrak beste antzezlan asko zuzendu ditu, adibidez: Manuel Rivas-en “La lengua de las mariposas” eta Emmanuel Vacca-ren “Ildebrando Biribó o un soplo al alma”.

Hala ere, Iñaki Rikartek ez du 2002an hasitako aktore-ibilbidea alde batera utzi, eta erreferentziazko leku askotan aritu da, hala nola, ANTZERKI-ZENTRO NAZIONALEAN eta ANTZERKI KLASIKOKO ZENTRO NAZIONALEAN. Horrela, 2012an eta 2010ean Ernesto Caballero-rekin lan egin zuen Calderon de la Barca-ren “En esta vida es todo verdad y todo mentira” obran eta José Ramón Fernández-en “La colmena científica o el café de Negrín”. Horrez gain, Ignacio García Mayren eta Ana Zamora-ren zuzendaritzapean aritu da, besteak beste.

Rikartek zinemaren (“Eutsi” - 2007) eta telebistaren (“El precio de la libertad” - 2011 edo “Mugaldekoak” - 2009) alderdi artistikoak ere landu ditu, eta bertan asko ikasi du Mar Navarro, Miguel Olmeda, Emilio Goyanes, Vasily Protsenko bezalako profesionalen ondoan.

ANTZERKI-EMANALDIA IKUSTEA

Klasikoak klasiko dira edozein arotan garaikide izateko ahalmena dutelako. Guk Erpurutxo ipuina aurkezten dizuegu, baina abandonuari garrantzia ematen diogu eta, testuinguru gisa, egungo gizartearekiko paralelismoak agerian uzten dituen egoera bat jartzen dugu.

Erpurutxo ipuinean, ume txiki eta burutsu batek bere anai-arreba eta senide guztiak salbatzen ditu, nahiz eta gurasoek, baliabiderik ez zutelako etsita, basoan utzi izan.

Ipuina iruditeria kolektiboaren parte da. Istorioaren zenbait zati gogoratzea nahikoa da hunkitzeko:

Nor ez da basoan galdu eta bakarrik gelditzearen beldur izan?

Nork ez du irudikatu etxera itzultzeko harri koskor zurien arrastoa? Eta txoriek jan eta desagertzen den ogi-apurren arrastoa?

Nor ez da ogro maltzuraren beldur izan?

Xalotasun ukitua duen unibertso fantastiko hori birsortuko dute aita batek eta aitona batek, egun oso berezi baten bezperan. Dena hasten da eskuko hatz lodia altxatu eta irudimena aske uztean...



GELAN JOLASEAN. ADIERAZPEN ARTISTIKOA LANTZEKO JARDUERAK

Ikuskizunaren ostean, ikusleen baitan izan duen eragina aztertzeke unea da. Antzezlanaren gaiak oinarri dituzten talde dinamikak lantzea proposatzen dizuegu.

GAIA

Kultura guztietako haurrak dira gurasoen maitasuna galtzearen beldur, hau da, maitatuak ez izatearen beldur. Bertan behera uzten badituzte, maite ez dituztelako dela uste dute.

Abandonuari izua oso errotuta dago gizakiengan, biziraupen-balioaren garrantziagatik. Izan ere, gizarteak harrapakin erraz bihurtzen ditu umeak eta adinekoak, ahulagoak baitira. Ia haur guztiek sentitzen dute antsietate mota hori. Are gehiago, beste espezie batzuetan ere gertatzen dela ikusi dute adituek.

Kasu honetan, umeak kezkatzen dituen gai bati egin behar diogu aurre, eta ezin dugu edozein modutan jorratu.

Proposamen eszenikoan, abandonuaren gaia beste egoera baten bidez aurkeztu dugu: arretarik eskaini ezin diolako aitona zahar-egoitzara eraman nahi duen aita. Gaixorik dago, eta norbait behar du ondoan uneoro.

Egoera hori umeekin abandonuaz hitz egiteko aitzakia da, ipuinean zein ikuskizunean.

- ★ ¿Zergatik uzten dituzte gurasoek Erpurutxo eta bere anai-arrebak basoan? Ez al dituzte maite? Eta ikuskizunean, ez al du aitak aitona maite?
- ★ Beste konponbiderik al dago?
- ★ Zelan erantzun du Erpurutxok? Eta aitonak?
- ★ Pertsonaiek abandonuaren arrazoia ulertzen al dute?
- ★ Ipuinean, Erpurutxok gurasoak aurkitzen ditu; eta antzezlanean?
- ★ Nolabaiteko abandonu-sentipena izan al dugu inoiz? Nolakoa izan da berriz elkartzeko unea?
- ★ Zein koloretakoa da abandonua? Eta berriz elkartzea?

Azkenik, abandonuari eta berriz elkartzeari buruzko koadro kolektibo bat sortzea proposatzen dizuegu. Era berean, interesgarria izan daiteke horma-irudi bat egitea

Abandonua da...

Berriz elkartzea da...

PERTSONAIAK

Ikuskizuneko pertsonaietatik abiatuta, aitatik eta aitonatik, alegia, bi paperak antzezteko aukera ematen duen bikotekako dramatizazio bat egitea proposatzen dizuegu.

Haurren erdiari ogi-koskor bat emango diogu, eta beste erdiari, zapi bat edo sukaldeko trapu bat. Azken horiek gurasoak izango dira, eta ogi-zatia duen aitona/amama bilatu beharko dute, beraz arduratzeko.

Abiapuntua ikuskizuna bera da, baina umeez inprobisatu egingo dute, eta bikote bakoitzak harremana propio sortuko du. Horrela, istorioa berridatzi eta amaituko dute, nahieran.

Jarraitzeko, aitona-amonek guraso-rola hartzea (eta alderantziz) proposa dezakegu, bizipena osatu ahal izateko.

BASOA

Erpurutxo ipuina basoan gertatzen da batik bat; antzerki-bertsioa, aldiz, baso-itxurako gela batean.


Ikerne Gimenez eszenografoa basoaren tonuetan eta formetan oinarritu zen istorioaren unibertsoa birsortzeko.

Bestalde, Esteban Salazar argiztatzaileak erronka handi bati egin zion aurre, basoko tonu- eta argi-aldaketak barneko espazio itxira eramateko.

Aurkako prozesua proposatzen dizuegu: barneko leku itxi ezagunetik (gelatik) abiatu eta jolasteko baso misteriotsu irekia sortzea.

Proiektu hori martxan jarri aurretik, askotariko jatorritako ariketak aurkeztu nahi dizkizuegu, informazioa bildu eta irudimena pizteko:

- **Ikuspegi zientifikoa - natura aztertzea**



Bideo honetan, baso batek hamabost hilabetean jasaten dituen aldaketak laburtzen dira 3 minututan, jarraian bistaratutako 40.000 argazkiri esker.


<http://youtu.be/jfa29pq6NFs>

- **Ikuspegi artistikoa.**

([PowerPoint](#) aurkezpen deskargatu:

<https://dl.dropboxusercontent.com/u/89482980/Basoa%20eta%20Artea.pptx>)

Basoa eta hari lotutako sinbologia margolari askoren inspirazio izan dira betidanik. Orain duzue koadro horietako batzuk ezagutzeko aukera.



CEZANNE



KLIMT



MONDRIAAN



PICASSO



MAGRITTE

Halaber, artista garaikideek basoa hartu dute inspirazio gisa artelanak sortzeko, hainbat material eta kontzeptu baliatuta.



BRUCE MUNRO



JOAN COSTA



NIEVES ALVAREZ



GALAN SOBRINI



THE WHIRLER

Beste artista batzuek, ordea, basoan bertan osatu dute lana.



ROY STAAB



Horren adibide da Roy Staab. Staab Milwaukee-n (AEB) jaio zen 1941eko irailaren 9an.

70ko hamarkadan margoa eta akuarela landu ostean, kanpoan lan egitea erabaki zuen. Horrela, 1983az geroztik, naturan eta naturarekin bakarrik egin du lan, eta jarduten duen tokian aurkitutako materialekin sortzen ditu obrak. Horrez gain, Staaben sormen-prozesuan oso garrantzitsua da komunitatearen parte-hartzea/sormena.



Artistak Urdaibaiko erreserba naturaleko 500 zuhaitz-enborretan utzi du bere sormen-gaitasunaren aztarna. Omako basoa obra izugarri ederra da. Han, artelanaren koloreek eta formek basoarekin bat egiten dute.

- **“Basoa sortzen” proiektuaren garapena**

Nola bihur dezakegu gela -edo eskolako beste leku bat- baso?

Hasteko, inguruko materialak hartu eta forma emango diegu: hainbat tamainatako paperak, paper-biribilkiak, liburu multzoak, egunkariak, puxikak, oihalak ...

Materiala hautatu ostean, zuhaitzak sortzen hasiko gara; guztiak berdinak izan daitezke edo askotariko formatakoak. Horrela, zuhaitzez zuhaitz, basoa osatuko dugu.

ERPURUTXOREN EGUNKARI SEKRETUA

Erpurutxo ipuinaz gozaten jarraitzeko, “El diario secreto de Pulgarcito” (Philippe Lechernier-ek idatzia eta Rebeca Dautremer-en irudiekin) liburu erakargarria gelan irakurtzea gomendatzen dizuegu.

Istoria modu berezian jorratzen du kontakizun eder horrek, eta gabeziaren eta abandonuaren inguruan unibertso poetikoa sortzen du. Umorez, zentzuz eta ezagutzaz beteriko liburua da.



ASTEAZKENA

Gaur asteazkena da. Ez dago eskolarik.

Astehenean eta asteartean ere ez zen egon, eta ostegunean eta ostiralean ere ez da egongo.

Larunbatetan ez dago inoiz, ezta igandeetan ere, jakina.

Egia esan, janaria bukatu zenetik, inguruko eskola guztiak itxi dituzte.

-Ezin da irakatsi tripa hutsik!- esan zuen Maxilari irakasleak, gure tutoreak.

Ostean, koaderno guztiak jan zituen, eta alde egin zuen. (Nire olerki-koadernoaren zati txiki bat besterik ez zuen jan, airea bezain hutsa omen zelako. Besarion bukatzea, ordea, kostatu zitzaion, tontokeriaz beterik baitzegoen, eta trigonometriakoak kalte egin zion. Hau poza!)

BASDA


ETA

ARTEA

**1. Basoa,
inspirazio.**


Paul Cezanne (1839-1906)

Basoa




Gustav Klimt (1862-1918)

Basoa



Pieter Cornelis Mondriaan (1872-1944)

Deletik gertu dagoen basoa



Pablo Picasso (1881-1973)

Paisaia




René Magritte (1898-1967)

Sutea




Bruce Munro (1959)

Solar Powered Field



Joan Costa (1961)

Uhina




Nieves Álvarez (1974)

Basoa



Galán Sobrini Arquitectos



The Whirler

Elementu eolikoak




Innovarte

Gabonetako dekorazioa



Philip Beesley Architect

Hylozoic Ground



2. Basoan egindako
esku-hartzeak.

Roy Staab (1941)

Earth Art Exhibition



Agustín Ibarrola (1930)

Omako basoa



Agustín Ibarrola (1930)

Omako basoa



Agustín Ibarrola (1930)

Omako basoa

